

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Tutera, Nafarroako Unibertsitatea eta Gaztelan Nafarroako Ekintzaitza Babesteko Sareari atxikitu zaizkio

Horrenbestez, jadanik sareko kide diren beste 14 entitate eta erakunderi gehitu zaizkie, eta sare horren helburua enpresen sorrera erraztea da koordinatutako zerbitzuak eskainiz

Lunes, 08 de septiembre de 2014

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu du gaur honako hauekin: Tuterako Udaleko alkate Luis Casadorekin; Nafarroako Enpresa-Unibertsitate Fundazioko zuzendari nagusi Cristina Muñozekin; eta Gaztelan Fundazioko koordinatzaile Amaya

Campiónekin, erakunde horiek Nafarroako Ekintzaitza Babesteko Sareari atxikitzeko erakunde laguntzaile moduan. Ekitaldian NEZko Enplegua Sustatzeko eta Aukera Berdintasunerako Zerbitzuko zuzendariak ere parte hartu du.

Sarearen helburua Nafarroan urtero sortzen diren enpresa-kopurua handitzea da ekintzaileei honako hauek emateko: informazio, dibulgazio, prestakuntza, orientazio, aholkularitza eta laguntzeko zerbitzuak ekintzaitza-proiektuak abian jartzeko garaian. Horretarako, Sareak hura osatzen duten erakundeen arteko lankidetzeta sustatzen du, bai eta eskaintzen diren zerbitzuak koordinatzea ere; hala, bikoiztasunak ekingo dira eta beren eraginkortasuna hobetu.

Ekintzaitza Babesteko Nafarroako Sarearen jarduera www.navarraemprende.com webgunean jasotzen da. Bertan modu sinple eta ulerkorrean bateratzen dira Sareko kideek pertsona ekintzaile, enpresa orori eta gizarteari oro har emandako informazioa eta doako zerbitzuak.

Sarea osatzen duten erakundeek gainerako kideekin era koordinatu eta parte-hartzailean lan egiteko konpromisoa hartzen dute, ekintzaileen aholkularitzako protokolo bateratuak praktikan jartzeko, bazkide eta erakunde laguntzaileen arteko itunak egiteko eta, oro har, ekintzaileei laguntza emateko garaian doako Zerbitzuen Gutun bat sortzeko.



Ezkerretik eskuinera: Marta Álvarez, Luis Casado, Lourdes Goicoechea, Amaya Campión eta Cristina Muñoz.

Hitzarmena sinatzeak ez dakar beren zerbitzuak betetzeko berariazko finantzaketarik, erakunde bakoitzak Nafarroako Gobernuaren edo beste erakunde batzuen aldetik jasotzen duenaz gain.

Nafarroako Ekintzailtza Babesteko Sarea iragan urtarrilean [sortu zen](#) Nafarroako I. Ekintzailtza Planaren esparruan. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatzen du eta, orain arte, hamar bazkide nagusi zituen (Nafarroako Gobernua, Iruñeko Udala, CEIN, CEN, UGT, CCOO, Caderna-Garalur, Nafarroako Erdialdeko Partzuergoa, TEDER elkarte eta EDER partzuergoa) eta beste lau [bazkide-laguntzaile](#) (Nafarroako Lan Enpresen Elkarte, ANEL; Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera; Moderna fundazioa; eta Nafarroako Langile Autonomoen Profesionalen Batasuna, UPTA). Beste hiru erakunde gehituta, Sareak bere estaldura handitzen du, orokorra nahiz espezializatua, bai eta haren jarduerak koordinatzeko aukera ere.